

MATRIKULA OFIZIALA 2019-2020

Datorren 2019-2020 ikasturtetik aurrera, Hizkuntza Eskola Ofizialetarako MATRIKULA OFIZIALA IKASGUNEA plataformaren bidez egin ahal izango da SOILIK (<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>).

Plataforma hori ikasleek honetarako erabili ahal izango dute:

- ✓ Matrikula eskaera egiteko.
- ✓ Matrikula eskaera kontsultatzeko.
- ✓ Onartuen eta baztertuen zerrenda kontsultatzeko.
- ✓ Dokumentazioa aurkezteko.
- ✓ Erreklamazioak eskatzeko.
- ✓ Ordainketa egiteko.
- ✓ Eskola Agiri Ofizialak eskuratzeko.

IKASGUNEA erabili ahal izateko, ikasleek DERRIGORREAN erregistratuta egon beharko dute plataforman. Erregistratzeko derrigorrezkoak izango dira:

⇒ Baliozko identifikatzaile bat, hauen artean:

- NAN – Nortasun Agiri Nazionala, edo
- AIZ – Atzerritar identifikaziorako Zenbakia, edo
- HNA – Hezkuntza Nortasun Agiria (Ikaslearen Zenbakia)

⇒ Baliozko posta elektronikoa eta pasahitza (ikasleek datu horiek behar izango dituzte geroago plataformara sartu ahal izateko).

Orain arte Pasaporteaz edo NAN eta AIZ ez den beste edozein identitate dokumentua erabiliz matrikulatzen ziren ikasleek DERRIGORREAN HNAz ez badaukate. Eskolan eskatu beharko dute. Horrelakoetan, eskolak berak egingo du eskaera.

Plataformara sartu ahal izateko, IKASGUNEA plataforman erregistratzeko emandako posta elektronikoaz eta pasahitzaz egingo da.